



izor LOREA



EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARAREN ALDIZKARIA,
POUR UNE AGRICULTURE PAYSANNE ET DURABLE AU PAYS BASQUE



Bihar ere laborari

Aurten Lurramak bere hogoigarren edizioa ospatuko du. Urtez urte, eskualde anitz gomituak izan dira eta bakotzak bere berezitasunak ekarri ditu. Hogoigarren edizioarentzat Euskal Herria du gu ohoratuko.

Lema nagusia «Bihar ere laborari» izanen da. Erranaldi hunek bi zentzu ukaiten ahal ditu. Alde batetik, gaur egungo laborariak biharko zaindu behar dira, lanean plazerra atxik dezaten beren ofizioaren segitzeko. Zailtasun gero ta gehiago bada laborantza munduan (paper gero eta gehiago, kabaletan eritasunak, klimaren aldatzea eta horrek eragiten dituen ondorioak...) eta batzu lotsatzen dira. Bigarren ikuspegia da ondoko belaunaldiari laborantzan plantatzeko gogoia ematea. Gure herri ttipietan laborantza desagertzeraz uztan bada ondoko hamarkadetan, herri guziak dira mehatatuak izanen, hustuko baitira, jendea joanen baita eta eskolak, ostatuak eta herriko bizi guzia zalantzan emana izanen baita.

Euskal Herrian gauza frango egiten da laborarien alde eta urrats kolektibo horien ezagutza egiten ahalko da aurten Lurraman. Iparraldeko 4 AOP-k aitzinean emanak izanen dira (bostgarrena bidean delarik) eta Hego Euskal Herrikoak ere bai. Sormarka azkarak ditugu Euskal Herrian eta horrek erakusten dauku jendea kalitateari atxikia dela. Asteburuan zehar, sormarka horiek manera desberdinetan ikusiko ditugu.

Gure lurraldeko laborantxaren beste indarra da sare eta sail anitz badirela maila desberdinetan. Laborari batek ber ekoizteko manera duten beste laborari batzu aski errexki atxemaiten ahal ditu nahi badu. Egungo egunean inguratua senditzea anitz da eta indar gehiago emaiten ahal du. Lurrama denborako mintzaldietan beste gai batzu aipatuko dira hala nola lurra, transmisioa, untsa izaitzea... eta, aldi oro, partehartzaile eta lekuko desberdinak izanen dira.

Merkatuan Euskal Herri osoko mozkinak atxemaiten ahalko dira. Ostatuan ere jaki berri batzuek bisitarien gosea asetzen ahalko dute. Ahantzi gabe talde desberdinek giroa berotuko dutela asteburu osoan.

Horiek erranik, gomita luzatua zauzue ! Azaroaren 7, 8 eta 9an Miarrizten elgar gaitzen Lurramaren 20. edizioa ospatzeko.



Zorionak Lurrama!

Cette année, Lurrama fête sa 20^e édition ! 20 éditions de promotion de l'agriculture paysanne et de sensibilisation à une alimentation saine, locale et de qualité, au plus près des consommateurs. D'abord à Bayonne, ensuite à Biarritz, sans oublier une année exceptionnelle à Arbonne, l'évènement organisé par Euskal Herriko

Laborantza Ganbara (EHLG) est devenu un rendez-vous incontournable.

À l'occasion de cet anniversaire, la région invitée sera notre propre territoire, Euskal Herri, dans sa globalité et sa diversité. Les habitué.e.s du marché fermier trouveront un marché nouvellement organisé pour l'occasion, avec un pôle pour chacune de nos 7 provinces et un espace dédié aux Appellations d'Origine Protégée, afin de valoriser les 4 AOP d'Iparralde et découvrir celles d'Hegoalde.

Pour cette 20^e édition, nous avons décidé de regarder vers le futur avec le slogan « Paysan.ne.s de demain - Bihar ere Laborari ». Quand on pense à l'avenir de l'agriculture, on pense naturellement au renouvellement des générations. Si le Pays Basque Nord est reconnu pour son dynamisme en matière d'installation, ce n'est pas le cas au Sud où le secteur industriel a vidé les campagnes de ses travailleurs. Cette différence de situation sera analysée lors de la première conférence programmée le vendredi 7 novembre à la halle d'Iraty à Biarritz. D'autres enjeux liés au thème seront abordés lors des tables rondes du samedi et du dimanche : la préservation de la terre agricole comme outil de travail, la formation, le bien-être des paysan.ne.s, la relocalisation de notre alimentation, et les atouts des AOP.

Lurrama 2025 verra aussi le lancement officiel d'Herriko Garagarnoa, la nouvelle filière de production locale d'orge brassicole et de bières. Comme Herriko Ogia et Herriko Haragia, elle est animée par la volonté de relocaliser la production et de fournir un produit de qualité. Vous pourrez déguster des bières Herriko dès cette année car toutes celles servies à Lurrama seront issues de cette démarche.

Quelques autres surprises vous attendent aussi les 7, 8 et 9 novembre, à la Halle d'Iraty de Biarritz. Nous sommes impatients de vous retrouver pour fêter l'anniversaire de Lurrama !



Michel Curutchet,
laboraria eta Lurramako antolaketa taldeko kidea

Ugo Arbelbide,
Paysan et membre du comité organisateur de Lurrama

Bihar ere laborari

Paysannes et paysans de demain

C'est une édition spéciale qui aura lieu ces 7, 8 et 9 novembre à la halle d'Iraty de Biarritz où le salon Lurrama fêtera avec vous sa 20^e édition. Le bel âge direz-vous ? Un âge symbolique quoi qu'il en soit, un anniversaire que nous souhaitons tourné vers l'avenir et, pour cela, une thématique centrée sur un enjeu crucial pour le territoire : « Paysannes et paysans de demain - Bihar ere laborari ». Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) vous souhaite la bienvenue à Lurrama !

« Bihar ere Laborari » lelopean iraganen da aurten Lurramaren 20. edizioa, azaroaren 7, 8 eta 9an, Miarritzeko Iratigelan. Saloina urte ondarreko hitzordu nagusia bilakatu da, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak konbentzimendu osoz eramaiten duena, tokiko laborantza herrikoi eta solidarioa biziartzeko eta sustatzeko. Lurramak hori du argitara eman nahi. Aurten, geroari begiratu nahi dugu eta « biharko laborariak » plaza erdian eman nahi ditugu.

Gazteen plantatzea ezinbesteko

Laborariet baserri munduan hainbat funtzio betetzen dituzte eta herri aktibo baten seinale dira. Bizkitartean, edozoin arlotan bezala segida hartzeko gogoia duten gazteak izaita ezinbestekoa da dinamika aitzina eramaitzeko eta lurraldearen geroa segurtatzeko. Nor izanen dira biharko laborariak ? Etxaldean segida nola bermatu eta laborantza belaunaldien berritzea nola segurtatu ? Ofizioa nola ikasten da ? Zoin dira Euskal Herriak gaur eta bihar dituen erronkak, elikadurari begira ?

Lurramak funtsezko galdera hauekin zabalduko ditu bere ateak, datozen egunetan. Euskal Herriak 7 probintzi dituen bezala, 7 mahai-inguru programatuak dira gai hauen jorratzeko : laborantza lurraldearen eskuratzeko, etxalderik gabeko pertsonen plantatzea, formakuntza, elikadura burujabetza, hazkurriaren berreskuratzea eta laborarien ongi-izaita. Gogoeta elikatzeke, laborari, hautetsi eta laborantza eragile batzuk hitza hartuko dute (programa zehatza 4. orrian).

Euskal Herriak bat egiten Lurraman

20. edizio hau behar bezala ospatzeko, gure lurraldea argitara emaita erabaki dugu : Euskal Herria ! Publikoak lurralde zabal honen aberastasun eta aniztasuna ikusiko eta jastatzen ahalko ditu.

Laborantza, aktibitate ekonomiko garrantzitsua da Euskal Herri osoan. Inportantzia badu ere bai kultura mailan, lurralde antolamenduan eta paisaia, biodibertsitatea edo uraren kalitatearen aldetik.

Laborari plantatzeko errealitateak ezberdinak dira probintzien artean. Iparraldean laborari instalazioa dinamikoa da oraino. Egoera ez da arras bera Hego Euskal Herrian nun ofizioaz bizi diren laborari kopurua apalagoa den, industriak toki anitz hartzen baitu.

Erabakitzeke gaitasunak ere desberdinak dira lurraldetasunari doakionez. Laborantza politika publikoak gehienik Europa mailan erabakitzen badira, Hego Euskal Herriko administrazioek (Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Gobernuak) dituzten erabaki eta finantza ahaletarik oso urrun gelditzen da Ipar Euskal Herria.

Dinamika kolektiboaren aldetik, laborantza eragile frango daude bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Hainbat elkarte eta egituretako ordezkari Lurramara etorriko dira heien lana aipatzeko : Biolur Gipuzkoako elkar-tea, Amillubi mugimendu agroekologikoa, Oartzungo elika kooperatiba, Bio Nekazaritza Arabatik, Ehne Nafarroa eta Bizilur, Errigora baita Iparraldean untsa ezagutzen ditugun Trebatu, Lurzaindia, etab.

Halaber, Euskal Herriak bere kalitate urrats eta sormakak baditu, ekoizpen moldeak eta ekoizpenen jatorria lurraldean finkatzen dituztenak. Horiek ere laborarien iraunarazteko tresnak dira.

Sormakak ohoretan

Kalitatezko laborantza ekoizpen frango ditugu Euskal Herrian, sail, marka, labela eta jatorri deiturapean. Merkatu berri bat aurkitzen ahalko da aurten Lurraman, desberdinki antolatua, aberastasun hori azpimaratzeko.

Merkatuaren erdigunean, Euskal Herriko sormarken aniztasuna argitan emanen da : Ossau Irati, Idiazabal eta Erronkari ardi gasnak ; Lodosa eta Ezpeletako biperrak ; Kintoa xingarra ; Getaria, Bizkaia eta Arabako txakolinak ; Araba, Nafarroa eta Irulegiko arno beltz, gorri eta xuriak eta Euskal Herriko sagarnoa.

Haien inguruan, euskal etxe-ekoizpen proposamen anitza aurkituko duzue erakusmahaietan, probintziako antolatuek : gasnak, eztiak, erreximentak, baratzeak, lekadunak, gaztainak, sendabelarrak, te eta tisanak, edariak, izozkiak eta haragi mota frango. Bisitariak laborariekin trukatzeko parada paregabea ukanen dute.



“ LA 20^e EDITION DE LURRAMA FAIT LE CHOIX DU TERRITOIRE PAYS BASQUE ET DE SES SEPT PROVINCES.”



Herrikoia mahai gainean

Azaroaren 7a, ostirala

- **12.30:** Donibane Garaziko ostaler lizeoak kozinatu eta zerbitzatu bazkaria, Oier Bonetbelche sukaldariaren parte hartzearekin, 19 €/eusko

- **20.30:** Donostiako Cebanc ostalaritza zentroko ikasleek kozinatu eta zerbitzatu bazkaria, Xabier Zabaleta sukaldariaren parte hartzearekin, 25 €/eusko

Azaroaren 8a, larunbata

- **13.00:** Hendaiako Irandatz kolegioko Cédric Garay sukaldariak prestatu bazkaria, 16 €/eusko
- **21.00:** ohiko zikiroa, 25 €/eusko

Azaroaren 9a, igandea

- **12.45:** Tokiko sukaldarien bazkaria, 34 €/eusko

Nahieran

- Arno ostatuan : « 7 probintziak » sormarken azeria, txakolina, sagarnoa, arnoa...
- taloak, burgerak eta ogitartekoak
- matahamiak, bixkotxak eta edari beroak

Sartzea : 5 €/eusko.

Egitarau osoa : www.lurrama.org

Gazama eta gazaita : Ipar eta hegoaldetik, bi laborari



Iñaki Intxausti eta Elena Aguerre

Elena Aguerre untsa ezagutzen dugu, EHLGn lan egin baitu zombait urtez. Geroztik Elenak egin du bide ! Hamar urtez baratzezaintzan arizan ondoan langile bezala, laborantzaz plantatu da duela 3 urte, lur batzu Baigorri atxeman ondoan. Jateko sagar ekoizpen biologikoa abiatu du. Elena familiatik kanpo plantatu da, ez zailtasunik gabe lurra atxemaiteko, enpresa berria muntatzeko, etab. « Aspalditik laborantzak erakartzen ninduen, gaur egun fruitu biologiko ekoizpenean aritzeak zentzu anitz du enetako, tokian tokiko elikadura ekoiztu » dio Elenak.

Badu 10 urte Iñaki Intxausti laboraria dela Gipuzkoan. Jokin bere anaiarekin, Goierriko Zerain herrian kokatzen den Mendarte etxaldea kudeatzen dute laborantza ekologikoan. Baratzea, fruitu arbolak eta behi hazkuntza badute. Ekoizpen osoa zuzenki saltzen dute, merkatu eta kontsumo taldeetan, baita ere denda batzuen bitartez. Biolur laborantza ekologikoaren aldeko elkartearen kide dira.

Elena eta Iñakik ostiral arratsaldeko hitzaldian parte hartuko dute, 17.00tan : « Euskal Herrian laborari plantatu : errealitate ezberdinak ».



Vos dons sur le chemin des transitions

L'entrée d'automne est une période particulièrement importante pour Euskal Herriko Laborantza Ganbara de par l'approche imminente de Lurrarna bien sûr, le salon de l'agriculture paysanne qu'elle organise tous les ans grâce à l'aide de centaines de bénévoles, et parce qu'octobre marque le lancement de la campagne annuelle de collecte de dons : des dons privés qui sont une source importante de financement pour que notre association puisse agir concrètement au Pays Basque. Ainsi, vous êtes un peu plus de 800 à soutenir fidèlement les travaux d'EHLG.

20 ans d'engagement

2025 marque la 20^e édition de Lurrarna, c'est aussi l'année où EHLG souffle ses 20 bougies. 20 ans d'engagement auprès des paysannes et paysans sur leurs fermes. Ce parcours a été possible grâce à vos contributions et nous avons toujours besoin de votre soutien pour mener à bien les transitions vers un modèle agricole paysan, durable et solidaire. Leur mise en œuvre s'articule autour d'axes de travail majeurs :

- **la création de valeur ajoutée** sur les fermes, élément essentiel d'attractivité pour l'évolution des pratiques agricoles ;
- **le développement durable** du territoire, pour consommer mieux, renforcer les liens entre consommateurs et producteurs, grâce à l'agriculture paysanne et ses filières de qualité par exemple ;
- **le suivi des politiques agricoles**, garantes pour partie de la souveraineté alimentaire du territoire ;
- **et, plus que tout, la transmission des fermes** et le renouvellement des générations agricoles.

Face aux enjeux climatiques, énergétiques, environnementaux, alimentaires et sociaux, quelle agriculture souhaitons nous demain ? Qui seront les paysan.nes qui poursuivront ces transitions à l'échelle de notre territoire ? C'est autour de cette thématique centrale qu'aura lieu le salon Lurrarna, les 7, 8 et 9 novembre prochain. C'est aussi le sujet que nous

avons choisi de développer durant la campagne d'appel aux dons qui se déroulera jusqu'au 23 novembre.

**“ ZUEN EMAITZEK DUTE
LABORANTZA HERRI-
KOIAREN GARAPENA
AITZINARAZTEN. ”**



Des parcours multiples pour répondre aux défis de notre territoire

Diffusés en ce moment même sur les réseaux sociaux d'EHLG, des portraits de personnes que nous avons accompagnées à un moment dans leur métier de paysan montrent la pluralité des projets agricoles, les multiples formes de transmission de fermes et d'installation agricole adaptables à toutes situations, la diversité des parcours des un.es et des autres.

Il y a Antton, jeune maraîcher d'une commune de la Côte Basque où il est né. Hors cadre familial, il est parvenu à trouver des terres agricoles, assurant la pérennité de l'unique ferme de la ville. Il tient à préserver un équilibre entre son métier, qui demande un investissement important, et un peu de temps libre.

Yolande et Pauline, elles, vivent aux Aldudes sur une ferme en élevage ovin lait, avec une production fermière de qualité. La première a transmis sa ferme à la deuxième qui s'est installée en GAEC avec le mari de la première. Il y est question de transmission de biens mais aussi de savoirs, tout en laissant la place au jeune repreneur et à ses idées et envies.

En Soule, Bettan a repris la ferme familiale, un élevage de brebis laitières et de bovins allaitants. L'accompagnement d'EHLG l'a rassuré, aussi bien sur le plan administratif et juridique que pour concrétiser son souhait de moderniser la salle de traite. Ses troupeaux montent en estive de mai à septembre, libérant ainsi les prairies de la ferme pour y faire foin et regains et lui donnant aussi l'occasion de souffler un peu.

Elena, salariée pendant plusieurs années, a enfin trouvé des terres où planter ses vergers. À Saint-Étienne de Baigorri, elle produit des pommes à couteau. C'est une production peu commune qui répond à un réel besoin. L'accès à la terre est un enjeu important pour les installations de hors cadre familiaux comme elle.

Enfin, Jean-Marie paysan en Amikuze, a fait le choix de transmettre sa ferme à un jeune. Pourtant, il aurait facilement pu vendre à ses voisins pour l'agrandissement. Aujourd'hui c'est Txomin qui exploite la ferme. Il y produit des céréales. Être accompagné pour mettre sur pied le projet



En 20 ans...

EHLG est devenu un acteur incontournable sur le terrain :

- **pour les paysan.ne.s**, qui y trouvent des services en accord avec leurs besoins. Plus de 2 870 paysan.ne.s ont fait appel aux services d'EHLG ;
- **pour les institutions** (communes, autres collectivités territoriales) qui sollicitent la présence de EHLG dans des forums de réflexion et de discussion ;
- **pour la société civile**, qui sollicite l'avis de EHLG sur les questionnements concernant en particulier l'agriculture et l'alimentation ;
- **pour les services de l'État** qui invitent Euskal Herriko Laborantza Ganbara à siéger aux COPIL des sites Natura 2000 ou des SAGE (Adour aval, Côtiers basques)...

d'installation et mener la transmission a été précieux.

Une manière de contribuer à construire les transitions est de soutenir par un don financier le travail de Euskal Herriko Laborantza Ganbara. Que vous soyez un particulier ou une entreprise, c'est votre soutien qui nous permet d'avancer en faveur de l'agriculture paysanne au Pays Basque.

Pour faire un don nous vous invitons à suivre les explications en page 4.

Zure eskuen artean Bizi Baratzea, lurrari begiratzen duen orria

ARGIA kazetak Bizi Baratzea orriaren 3. zenbaki hau eskaintzen dautzu. Ederki ilustratua den aldizkari berri hau urtaroa hastearrekin batera agertzen da. Lurrari eta biziduneri buruzko jakintza praktikoak eta gaurkotatutako gaiak jorratzen ditu. Zenbaki honen aipagai nagusia erreleboa - etxaldean segida - da. Argia eta Bizi Baratzea lan taldekoak gurekin izanen ditugu Lurraman, hurbildu zaitez !

Bazenekien ? Bizi Baratzeak badu ere bere webgunea, altxorrez bete : bizibaratzea.eus



LURRAMA : conférences, tables rondes

> JEUDI 6 NOV, ESTIA Bidart

- 20h30 : Table ronde « Quelle(s) stratégie(s) d'installation pour améliorer la souveraineté alimentaire du Pays Basque ? »

Intervenants :

Jean René Etchegaray, président de la CAPB ; Oneka Zaballa Gonzalez du Gouvernement Autonome d'Euskadi ;

Joxe Mari Aierdi (Gouvernement de Navarre) ; Isabel Capdeville, présidente de InterAMAP du Pays Basque et Intza Barandiaran de la coopérative Biziola de Goierri.

> VENDREDI 7 NOV, halle d'Iraty

- 17h, salle 1-2 : « Les AOPs, une garantie du maintien des paysans au Pays Basque »

Intervenants : Panpi Olaizola (AOP Piment d'Espelette), un représentant de l'AOP Ossau Irati, Felix Ajuria (AOP Idiazabal) et Olatz Mitxelena Garmendia (AOP Euskal Sagardoa).

- 17h, salle 3 : « S'installer paysan.nes en Pays Basque : des réalités différentes »

Avec les paysannes et paysans Elena Aguerre (Nafarroa-Beherea), Iñaki Intxausti (Gipuzkoa), Aritz Ganboa (Nafarroa), Ainhoa Ithurben (Bizkaia)...

> SAMEDI 8 NOV, halle d'Iraty

- 11h, salle 1-2 : « Le défi de la reconquête alimentaire au Pays Basque »

Intervenants : un représentant de la CAPB, Livio Ribolisasco (Biharamunen Lantegia), un maraîcher de Gamarthe, Tasio Erkizia (Errigora)

- 15h, salle 1-2 : « Comment apprend-on à devenir paysan ? »

Intervenants : un représentant d'un lycée agricole, Hélène Rolland (paysanne), Jean Léon Larroque (espace-test Trebatu) et Iñigo Arruabarrena (espace-test Aleko).

- 15h, salle 3 : « La terre, outil de travail des paysan.nes »

Intervenants : un membre du collectif Amillubi, Maryse Cachenaout (Lurzaindia), Peio Dufau (député) et des paysan.nes.

- 17h, salle 1-2 : « Le bien-être paysan »

Intervenants : Cécile Monaco (association Sustengu), Marine Jaunarena (future paysanne, en parrainage) et d'autres paysan.nes...

LURRAMA 2024 : Soyez bénévoles ! Laguntzaile izan zaitez !

Lurrama a besoin de vous pour que cette 20^e édition soit une belle réussite. Soyez bénévoles, inscrivez-vous : www.lurrama.org

Lurramak zure beharra du 20. edizioa ederki kausitzeko. Laguntzaile izan zaitez, izena emazu www.lurrama.org gunearen bitartez. Milesker !

LURRAMA avec l'Eusko

Lurrama, le salon de l'agriculture paysanne du Pays Basque est un excellent moyen de faire le lien entre ce que nous mangeons, la façon de le produire et ses conséquences sur la vie d'un territoire. Pendant votre visite à Lurrama, profitez-en pour utiliser vos eusko, pour adhérer à Euskal Moneta et pour parrainer EHLG avec le don 3 %. Cela contribue au financement de Euskal Herriko Laborantza Ganbara qui continuera à oeuvrer pour une agriculture d'intérêt public !



Formations VIVEA



> **Mardis 9 décembre 2025 et 3 mars 2026, Luxe-Sumberrautte, 9:00 - 17:00**

Entretien et utilisation de la tronçonneuse pour une gestion durable des arbres de la ferme

2 journées de formation pratique sur l'entretien et l'utilisation de la tronçonneuse dans l'optique de gérer durablement les arbres de la ferme. Formation validante MAEC NA 23-27

Avec Vincent Soubieille, gestionnaire forestier indépendant, vous apprendrez :

- les techniques de coupe au pied, d'ébranchage, de tronçonnage
- à utiliser de petits outillages et accessoires
- à entretenir la tronçonneuse : les chaînes, les guides, etc.
- les règles d'utilisation de la tronçonneuse en sécurité

> **Jeudis 4 et 11 décembre 2025, Ainhice-Mongelos, 9:30 - 17:30**

Certiphyto primo-demandeur

Formation sur deux journées pour obtenir votre Certiphyto et acquérir ou consolider vos connaissances sur l'utilisation des produits phytopharmaceutiques en matière de réglementation, impacts sur l'environnement et la santé et prendre connaissance des méthodes alternatives.

Inscription aux formations :
05 59 37 18 82

BULLETIN DE DON - EMAITZA BONOIA

Votre soutien nous permet d'agir par des actions concrètes pour une agriculture paysanne
Zure laguntzari esker, laborantza herriko baten alde jokatzan ahal dugu ekintza konkretuen bidez

Nom / Deitura :
Prénom / Izena :
N° / Zka Adresse complète / Helbidea zehatza :
CP / PK - Commune / Herria :
Tel. E-Mail :

☐ Je fais un don de €/eusko emaiten ditut
par chèque à l'ordre de Euskal Herriko Laborantza Ganbara / txekez.
à renvoyer à : Zuentzat - 64220 Ainiza Monjolose - helbiderat igorritz

☐ Je souhaite que l'on me contacte pour mettre en place un virement bancaire.
Nahi nuke harremanetan jar gaitezen banku biramendu baten bideratzeko.

☐ J'accepte de recevoir la newsletter d'EHLG.
EHLG-ren berripapera eskuratu nahi dut.

Les informations portées sur ce formulaire nous serviront à vous adresser votre reçu fiscal. Vous bénéficiez d'un droit d'accès et de rectification aux informations qui vous concernent. Si vous souhaitez exercer ce droit et obtenir communication des informations vous concernant, veuillez vous adresser à Euskal Herriko Laborantza Ganbara.



IZAR LOREA

Directrice de la publication : Maryse Cachenaout - Rédaction : Euskal Herriko Laborantza Ganbara 64220 Ainhice-Mongelos
laborantza.ganbara@ehlgai.org - www.ehlgai.org - Tél. : 05 59 37 18 82 - ISSN 2116-5815 - Impression : Mendiboure-Arizmendi - Cambo-les-Bains